



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023ko martxoa

SEGURTASUN-ALBISTEAK:

Hauek dira 2023ko otsailean argitaratutako segurtasun-oharrak:

- MINURIN 0,1MG/ML SUDURRETIK LAINOZTATZEKO SOLUZIOA
- BRIBUDINA (NERVINEX ETA BRIVUDINA ARISTO)

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

SARS-CoV-2AREN AURKAKO TXERTAKETA 6 ETA 59 HILABETE BITARTEKO HAURREN ARTEAN

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ALERTA BERRIA PRESIDEN, LITIOAREKIKO INTERAKZIOETARAKO

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- INFAC berria argitaratu da: "Menopausiaren sintomen maneia".
- Farmakozaintzako Buletin berria, 56. zk.
- Komunitateko eta ospitaleko PROA ekipoen ziurtapen-arauen aurkezpena.

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS-EK OHARTARAZI DU AKTOKORTINA-REN IZENA ALDATU EGIN DELA MEDIKAZIO-AKATSAK SAIHESTEKO

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ERREZETA ELEKTRONIKOAREN INTEROPERABILITATEA POLONIAN, PORTUGALEN ETA KROAZIAN

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

Horiek dira 2023ko urtarrileko berrikuntzak.

HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

2023ko urtarrileko nabarmenenak.

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

Hauek dira 2023ko otsailean argitaratutako segurtasun-oharrak:

MINURIN 0,1 MG/ML SUDURRETIK LAINOZTATZEKO SOLUZIOA: KLOROBUTANOLAREN ESZIPIENTEAREKIKO ESPOSIZIOAK ERAGINDAKO ARRITMIAREN ETA UGALKETA-TOXIKOTASUNAREN ARRISKU POTENTZIALARI BURUZKO OHARTARAZPENAK TXERTATU DIRA.

Minurin 0,1mg/ml (desmopresina) sudurretik lainoztatzeko disoluzioak klorobutanola dauka egonkortze-gai. Zain barnetik eman ondoren klorobutanolarekiko esposizioa QT tartearen luzapenarekin lotu da, eta horrek arritmia arrisku potentziala dakar. Gainera, azterketa aurreklinikoek islatzen dute klorobutanolak ugalketa-toxikotasuna eragin dezakeela.

Produktuari buruzko informazioa eguneratu egin da (fitxa teknikoa eta erabilera-orria), klorobutanolaren eraginpean egon ondoren arritmiaren eta ugalketa-toxikotasunaren arrisku potentzialari buruzko ohartarazpenak txertatuta.

Minurin 0,1mg/ml sudurretik lainoztatzeko soluzioa kontuan hartzeko baldintza da ez izatea eskuragarri klorobutanolik gabeko desmopresina-formulazio alternatiborik.

AEMPSeK profesionalei bidalitako gutuna ikusteko, sakatu [hemen](#).

BRIBUDINA (NERVINEX ETA BRIVUDINA ARISTO): 5-FLUOROPIRIMIDINAK DITUZTEN ANTINEOPLASIKOEKIN (KAPEZITABINA, 5-FLUOROURAZILOA, TEGAFUR-A, FLOXURIDINA) ETA FLUZITOSINAREKIN INTERAKZIO HILGARRIA IZAN DEZAKEELA GOGORARAZTEN DA.

Bribudinaren eta fluoropirimidinen arteko interakzioa (kapezitabina, 5-fluorouraziloa, tegafur-a, floxuridina, fluzitosina) hilgarria izan daiteke, eta beraz, ez dira inoiz eman behar aldi berean. Bribudina bidezko tratamendua amaitzen denetik fluoropirimidinak ematen hasi arte gutxienez 4 asteko itxaronaldia errespetatu behar da.

Bribudina eta fluoropirimidinak aldi berean erabiltzeari dagokionez, informazioa emateko eta arriskuak minimizatzeko neurriak hartuta ere, kasu larriak jakinarazten jarraitzen da (heriotza kasuak barne). Bribudina preskribatu aurretik, ezinbestekoa da egiaztatzea pazienteak ez dela ari kimioterapia antineoplasikorik hartzen, ez eta 5-fluorouraziloa duen prestakin topikorik ere. Bribudina ematean, pazienteari horren berri eman behar zaio, eta gogorarazi behar zaio arretaz irakurtzeko ohartarazpena, ontzian dagoen informazio-txartela eta erabilera-orria.

Segurtasun-ohar osoa ikusteko, (MUH (FV), 03/2023), egin klik [hemen](#).

[Itzuli HASIERAra](#)

Osasun Publikoko Batzordeak abenduaren 15ean onartu zuen **SARS-CoV-2aren aurkako txertoa ipintzea gomendatzea** immunoerabakortze handia eragiten duten gaitzak dituzten **6 eta 59 hilabete bitarteko haurrei**. Gomendio horiek kontuan hartuta, [Euskadiko COVIDaren aurkako txertaketa-estrategia](#) eguneratu egin da.

Hala, SARS-CoV-2aren aurkako txertaketarako xede-populazioa handitu egin da; hots, ondorengo gaitz hauetakoren bat duten 6 eta 59 hilabete bitarteko haurrak barne hartu dira:

- Zelula ama hematopoietikoen transplantea.
- Organo solidoaren transplantea.
- Giltzurrun-hutsegite kronikoa.
- GIB bidezko infekzioa duten pertsonak, CD4 zenbaketa baxua dutenak.

- Immunoeskasia primario konbinatuak eta B zeluletakoak.
- Tratamendu immunozeabatzalea immunomodulatzale biologikoekin.
- Organo solido edo hematologikoko minbizia, kimioterapia zitotoxiko bidezko tratamenduduna, edo COVID-19aren garapen larria izateko arrisku handia dakarten beste tratamendu batzuk dituen (ospitalizazioa eskatzen dutenak edo heriotza eragiten dutenak).

Ohar osoa [hemen](#) sakatuta dago eskuragarri.

[Itzuli HASIERAra](#)

3 ALERTA BERRIA PRESIDEN, LITIOAREKIKO INTERAKZIOETARAKO

Litioa duela 75 bat urtetik erabiltzen da, mundu osoan, nahasmendu bipolarraren fase akutuak tratatzeko eta episodioak prebenitzeko. Era berean, tratamenduarekiko erresistenteak diren depresio-egoeretan antidepresiboak sustatzeko ere erabiltzen da. Medikamentu honek tarte terapeutiko estua du, intoxikazio-kasuan arrisku larria du, eta interakzio oso garrantzitsuak ditu, baita oso ezagunak ere, hamarkada horietan zehar pilatutako esperientziari esker.

Interakzioak farmakozinetikoak izan daitezke; izan ere, farmako batzuek (AIEEak, tiazidak, AEBI, AHA II, aliskirena) giltzurrunek litioa iraitzea muga dezakete, eta beraz, litioaren kontzentrazio plasmatikoa (litemia) maila toxikoetara hel daiteke, horrek ondorio larriak izateko arriskua dakar (baita heriotza arriskua ere). Dinamikoak ere izan daitezke, bihotz-hoditeriaren gaineko efektuak indartzearen bitartez (sertindola), edo transmisio serotoninergikoarenak (IMAO), eta emaitza horiek ere larriak izan daitezke.

Egoera horiek saihesteko, **jada litioa hartzen ari diren pertsonen medikamentu arazotsuak agintzeko alerta-sistema** bat planteatzen da. Interakzioa dagoela adierazteaz gain, alternatiba terapeutikorik dagoen ere jakinaraziko du. Pertsona bati litioarekin interakzio klinikoki esanguratsua duen medikamentu bat agindu behar bazaio, komenigarria da haren psikiatrarekin harremanetan jartzea, litemiak gertutik monitorizatzeko plan bat diseinatzeko.

Presbideko abisuaren adibidea:

Consulta de alergias interacciones, dosis máximas diarias, duplicidades, carga anticolinérgica y duración del tratamiento
(Tratamiento completo)


Consulta de interacciones del tratamiento completo del paciente

Interacción 1:

ENANTYUM 25MG GRANULADO 20 SOBRES(DEXKETOPROFENO)
PLENUR 400MG 100 COMPRIMIDOS DE LIBERACION MODIFICADA(LITIO)

- **Alternativa:** No
- **Gravedad:** MODERADA
- **Efecto:** El uso concomitante de AINE de forma prolongada (más de una semana) y litio puede disminuir la eliminación renal de litio y aumentar el riesgo de intoxicación.
- **Recomendaciones Médico:** Evitar en lo posible el uso prolongado. Valorar uso de paracetamol salicilatos, metamizol. Si se utilizan conjuntamente, monitorizar los niveles séricos de litio para reajustar las dosis.

[Itzuli HASIERAra](#)

INFAC BERRIA ARGITARATU DA

[Webgunean](#) eskuragarri dago INFAC buletin berria, "**Nola kudeatu menopausiaren sintomak**" izenburukoa.

Buletin honetan menopausiaren sintoma basomotorrak eta urogenitalak nola kudeatu aztertzen da –sintoma horiek dira menopausiarekin gehien erlazionatzen direnak–, eta hormona-tratamendu sistemikoaren segurtasunari buruzko azken ebidentziak jasotzen dira.

Buletinean oinarritutako PowerPoint aurkezpen bat ere, aurki dezakezue:

- Buletina [Txostena \(PDF, 1 MB\)](#) 
- Aurkezpena [PowerPointa \(PPTX, 1 MB\)](#) 

FARMAKOJAGOLETZAKO 56. BULETINAREN ARGITALPEN BERRIA

Duela gutxi, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakojagoletzako Buletinaren 56. zenbakia argitaratu da.

Zenbaki honetan honako gai hauek jorratu dira:

- Farmakozainketaren erronkak eta aukerak
- Sendagaiei buruzko oharra:
 - Pediatriako farmakozainketa: farmakozainketako unitatean bildutako kasuen deskribapena
 - Kate terapeutikoa eta sendagaiek eragindako ondorio kaltegarriak
- Fitxa teknikoak eguneratzea, segurtasun-arrazoiak direla eta Farmakozainketako Arriskuen Ebaluaziorako Europako Batzordearen (FAEEB) gomendioak

Buletina ikusteko, sakatu [hemen](#).

KOMUNITATEKO ETA OSPITALEKO PROA EKIPOEN ZIURTAPEN-ARAUEN AURKEZPENA

Antimikrobianoen Erabilera Optimizatzeko Programak (PROA) Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalaren (PRAN) estrategian sartuta egon dira hasieratik. Programa horien helburua da antibiotikoen preskripzioa optimizatzea, emaitza kliniko optimoak bermatzea, antibiotikoak erabiltzearen ondorio kaltegarriak minimizatzea, erresistentzien agerpena kontrolatzea eta kostu-eraginkortasuneko tratamenduen erabilera ziurtatzea.

Irizpideak bateratzeko, adierazleak homogeneizatzeko eta guztiok estandar berberen arabera lan egin ahal izateko, PRANek ospitale-esparruko sozietate zientifikoekin (SEFH eta SEIMC), arlo komunitariokoekin (AEPap, SEFAP, SEIMC, SEMERGEN, SEMFYC, SEMG, SEPEAP) eta autonomia-erkidegoen lankidetzarekin landu ditu **komunitateko eta ospitaleetako PROA ekipoak ziurtatzeko arauak**. Arau horiek 2022ko abenduan onartu zituen Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak, eta profesional sanitario guztien adostasuna dute. Gainera, PROAk behar bezala ezartzeko lan-gida izango dira, jardunbide egokiak definitzen lagunduko dute eta zentroek bete behar dituzten baldintzak zehaztuko dituzte.

[Komunitateko](#) eta [ospitaleko](#) PROA ekipoen ziurtapen arauetarako estekak.

Aktokortina® 100 mg disoluzio injektagarriko disolbatzailea eta hautsa deitzen zena orain honela deitzen da: **Aktokortina® 75 mg disoluzio injektagarriko disolbatzailea eta hautsa**. Bi aurkezpenek [printzipio aktiboaren dosi bera](#) dute, eta kanal farmazeutikoan elkarrekin egongo dira harik eta Aktokortina 100 mg disoluzio injektagarriko disolbatzailearen eta hautsaren azken loteak iraungitzen diren arte.

AEMPS Europako jarraibideak betetzeko egiten ari den harmonizazio-prozesuak ekarri du aldaketa hau; izan ere, jarraibide horien arabera, medikamentu horien izenean dosia base gisa adierazi behar da, eta ez gatz gisa.

Argibide gehiago lortzeko, sakatu [hemen](#).

[Itzuli HASIERAra](#)

Euskadiko edozein egoiliarrek erabili ahal izango du errezeta elektronikoa (*e-rezeta*), **Polonian** - edo alderantziz - bere historia klinikora sartzeko edo farmazia-bulegoetan botikak jasotzeko.

Europako Batzordearen baimenarekin, Polonian ere Euskadiko errezeta elektronikoa erabilgarri egongo da, **Portugalen** eta **Kroazian** bezala, eta aurki egongo da erabilgarri **Estonian** eta **Finlandian** ere.

Horrela, Euskadik erreferente izaten jarraitzen du errezeta elektronikoen elkarreragingarritasuna Europar Batasunean hedatzen; hain zuzen ere, 2025ean EBko 25 herrialdeetara zabaltzea aurreikusi da.

Albiste osoa [Osakidetzaren intranetean](#) kontsulta daiteke.

[Itzuli HASIERAra](#)

Hauek dira 2023ko otsaileko kontu berriak:

2023ko otsaila		
	Lorazepam	Lorazepam 0,5 mg pilula EFG. Dosifikazio berriarekin, pilulak ez dira zatitu beharko eta gutxieneko dosi eraginkorra erabili ahalko da.

2020ko urtariletik berriak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

Berrikuntzak formulazio magistralean:

Fludrokortisona	Astonin medikamentuak (fludrokortisona) ez du hornidurarik farmazien kanalean. Salbuespen gisa, eta Astoninen ohiko hornidura berrezarri arte, EAEko farmazietan formulazio magistrala (FM) baimendu da. Paperezko errezetak erabiliko dira uneoro: Fludrokortisona 0,1 mg 100 kapsula, <i>aurreikusitako tratamenduaren iraupena kapsula gutxiagorekin amaitzen bada izan ezik; kasu horretan, tratamendua amaitzeko behar diren kapsulak baino ez dira egingo.</i>
------------------------	---

	FM prestatu ahalko da errezeta berririk behar izan gabe, errezetan izen komertziala (Astonin) agertzen bada. Ez da onartuko FM banaketa elektronikorik. Printzipio aktiboaren prezioa 116,52 €/g da.
Azido borikoa	2023ko martxoaren 1etik aurrera, finantzatu egingo da formula magistral hau: azido borikoa 600 mg 18 obulu . Fakturazio-prezioa 22,38 eurokoa da.

Errezeta elektronikoan preskribatu daitezkeen formula magistralen zerrenda osoa sailaren esteka honetan kontsulta daiteke: formula-magistralak_202302.pdf (euskadi.eus)

[Itzuli HASIERAra](#)

8 HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- **Chibroxin kolirioa 3 mg/ml 5 ml-ko flaskoa.** Norfloxazinoa.
- **Codeisan 1,26 mg/ml jarabea 250ml.** Kodeina.
- **Kreon 35.000 U kapsula gogor gastrorresistenteak 100 kap./kutxa** Pankreatina.
- **Noiafren 10 mg, pilulak 20/kutxa** Klobazama.
- **Noiafren 20 mg, pilulak 20/kutxa** Klobazama.
- **Tobrabact kolirioa 3 mg/ml 5 ml-ko flaskoa.** Tobramizina.
- **Tobrex kolirioa 3 mg/ml 5 ml-ko flaskoa.** Tobramizina.
- **Zinnat 250 mg/5 ml pikortua aho-suspentsiorako, 50 ml/flaskoa.** Zefuroxima.
- **Astonin 0,1 mg konp 40 pilula/kutxa** Fludrokortisona.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Miflonide Breezhaler 400 mcg 60 kap inhalaziorako.** Budesonida.
- **Miflonide Breezhaler 200 mcg 60 kap inhalaziorako.** Budesonida.
- **Flecard 100 mg 30 eta 60 pilula** Flekainida.
- **Silkis 3 mcg/g pomada 100 g tutua** Kaltzitriola.
- **Glucolon® 5 mg pil.** Glibenklamida

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- [Hornidura-gabezien taula](#): Presbiden, zuzenean taula honetara daraman "Hornidura ezak" botoia txertatu da:



[CIMA-AEMPSen: AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetan jasotako edukiak Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileko buletinetik egokitu dira.